

# Marijane Minaberriren hilberri txostena (1926-2017)

ARBELBIDE, Xipri  
Ohorezko euskaltzaina

Ez dakit zerk hartu zaituzten, Marijane Minaberriz bi hitz erratea eskatzeko niri. Otsozelaiko cro-magnonen garaietakoak ote zarete Marie Jeanne bezala?

Norentzat zer interes dauka Marijanek hil eta urte baten buruan? Ez dute bakarrik hilobian sartu joan den otsailean. Ez ginen ehun pelaturik haren ehorzketetan eta, omenaldi bat egin baitzioten Alduden, berrogeita hamar bat ginen. Marijane ehortzia da betikotz denen gogoan. Goian bego. Eta egunetik harat: *Requiescat in pace*. Utzi bakean.

Zaharrak oroit zarete, menturaz, *Marijan Kantazan* 20.000 aletan saldu zen diskoa egin zuela *Oskorrik*, Minaberrik haurrentzat idatzi 23 kanturekin. Zenbat aldiz entzun duzue bat edo beste gure irratietan Marijane hil zenetik? Manex Pagola, Mixel Etxeberri eta beste batzuk grabatu Marijanen beste kantu zenbait, bestalde. Txalapartarik ere ez Joxean Artze hil denetik, Johnny Halliday kantuz entzuten zenutelarik faltarik gabe edozein irrati frantsesetan, zendu zelarik.

Ohorezko euskaltzain izendatu ninduzuelarik, ELiTBn zuen ordezkari den kideari eskatu nion mintza zedin han, oroitarazteko euskal irratia euskararentzat eginak zirela. Ez dakit zer erran zuen, hasteko ez da gauza handirik aldatu. Han entzunen duzue orro, oihu, garrasia eta marruma, amerikano edo espainol, baina ez Minaberri, ez Joxean Artze. Audiometroarentzat kantu amerikanoak nagusi omen, hango arduradun batek erran didanaz. Eta euskarak pisurik ez aski audiometroarentzat.

Beraz, gure Marijane Bankan sortu zen. Hegoalde honetan, zenbatek dakite Banka badela ere? Erreferentzia den Auñamendi entziklopedian «Branka»koa zela ikusiko duzue. Banka ere cro-magnonen garaietako, nahiz beti han den aitzineko labe garai hura. Banka ala akerraren gauerdiko eztula!

Industriaz ari bainaiz erran behar dut Marijanen aitona, Iholdiko txokoleta industrialaria zela. Ez zen 20 tonako kamioirik etortzen Iholdira txokoleta bila: ezkaratzeko xoko batean zituen egiten zenbait plaka astean Iholdi, Armendaritze, Heleta eta itzuli haietako mokofinentzat.

Semea mundu modernoan sartu zen leporadino. Bankan, ur-jauzi handi bat balia, argindarra egiten zuen turbina batez arta hartzen zuen.

Mundu modernoan beste urratsik ere egin zuen alaba kolegiarot igorritz, apez-gaiez kanpo nehor gutik egiten zuena mutikoetan. Pentsa beraz nesketan. Haurtzarotik bidegile beraz gure Marijane.

Baina batxiler urtean ama gaixotu zitzaion eta lizeoa utzi zuen diplomarik gabe. Lanean hasi zen herriko idazkari. cro-magnonen garaietako idazkari: ez zuen eguna bulegoan pasatzen. Noizbait, norbaitek agiri zerbait behar zuelarik, etxean egiten zion. Ez zen oraingo papereriarik cro-magnonen garaietan.

1954an aita-amak Uztaritzera joan ziren eta alaba haiekin. Lana Baionan: San Louis de Gonzague ikastetxean eman zizkioten 10-11 urteko haurrak. Lana gustatzen zitzaion. Hor egon zen hiru urte.

Ezkerreko abertzale handi batek eskatu zion norbait Gillom Epher kalonjeari, beste cro-magnon bati, euskara irakasteko bere haurrei, bere etxean. Epherrek Marijaneri proposatu. Honek onartu. Baionako ikastetxetik demisionatu eta delako abertzaleak, axeri egin! Eta hona Marijane langabezian, cro-magnonen garaietan ez zen luzatzen langabezian. Ez ginen oraino modernitatean sartuak.

Kalonje zuberotarrak idazkari lan bat aurkitu zion berehala *Basque Eclair* egunkarian. Hortik *Sud Ouesterat* pasatu zen. Orotarat 33 urte egon da egunkarietan idazkari eta gero kazetari, hala nola pilota partiden berri emateko, hark, emazteak, berriz ere bidegile.

*Côte Basque* irratiak sortu zituelarik udan lehen euskal emankizunak, hor ere lan egin zuen Piarres Larzabal, Pantxo Etxezaharreta eta beste zenbaitekin. Egundainokotan bidegile!

*Basque Eclair* egunkarian agertu zuen egunez egun, euskara ikasteko Oñatibiak egin metodoa, *euskara irrati bidez*, lapurterat egokiturik. Liburuetan agertu zuelarik, 18.000 ale saldu ziren. Turista parrasta batek ere erosi omen zuen. *Bask is different!* Bost kasetetan grabatu zituen ikasgaiak. Beti bidegile!

Erakasle, idazkari, kazetari, horiek denak purruxkeriak baizik ez dira. Uste gabetarik hasi zen euskaraz idazten. 20 urteko adiskide min bat hil zitzaion; barneko mina paper baten gainean purgatu zuen. Ez zitzaion gogoan pasatu ere norbaitek irakur zezakeenik. Ez zeukan euskaraz irakurtzeko ohidurarik, are gutiago idaztekorik. Ez zekien euskal literaturarik bazela ere. Hasian hasi, olerki eta ipuin zenbait idazten segitu zuen.

Ez zen ez ikastola ez klase elebidunik. Eskola, frantsesaren inperioan. Baina zenbait buru-bero izan ziren, euskara zerbait sartu nahi izan baitzuten. Lehenetarik izan zen Manuel Mixelena, 36an Hendaiarat ihesi etorri apezka. Herriko lehen ikastola bilakatuko zen *Haize Garbia* elkarte sortu zuen

Materialik ez zen eskolako haurrentzat. Baina deus ez gero! Horrela hasi zen Marijane haurrentzat ipuin, olerki eta antzerki idazten. Haur literaturari doakionaz lehen lehenetarik izan da. Zinezko bidegilea.

1963an, lehen ipuin liburutxo atera zuen, Iparraldean sortu berria zen *Goiztiri* argitaletxean: *Itxulingo andrea*. Ondotik *Haze Garbiarekin* beste bost bilduma. Eta gero ez zen gelditu. 1965ean lehen kantu bilduma: *Xoria kantari*.

Marijani zor dizkiogu ere bi hiztegi, frantsesa-euskara (1972) eta euskara-frantsesa, garai haietako euskaltzale guziek erosi genituenak: 37.000 ale saldu ziren. Bai eta lau tomatoko gramatika bat (1978), hamar urte lanen fruitua, hain lodia non arrakasta guti izan baitzuen.

Koro *Euskal dizkoak* ere atera zituen Mixelenaekin eskuz esku. Lehenetarik.

1965ean Antzerkizaleen Biltzarrak sariztatu zuen antzerki batentzat. 1982an Euskaltzaindiak eman zion Toribio Alzaga saria. Santurtziko udalak beste sari bat 1984an. 1980an Euskaltzaindikoko urgazle izendatu zuten, eta ohorezko kide 1997an. Ondoko urtean Euskal Idazleen Elkarateak ohorezko lehendakari egin zuen.

Beraz, oroz gainetik haurrentzat idatzi du. Duela 50 urteko cro-magnonen garaietarik egunera, bide egin badugu, besteak beste Marijan bezalako bidegileei esker da.

Oraingo gazteek beste horrenbeste egiten badute, euskara salbu da. Cromagnonen garaietarik ateraia.